

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 309/2019 Erabakia, maiatzaren 13koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldaketari**

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinak onesten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bateratua, 74. artikuluan dio administrazio publikoek beren antolaketa lanpostu zerrenden edo antzeko antolamendu tresnen bidez egituratuko dutela.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak honela dio zioen adierazpenean: "Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren ardatzik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibidetzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute eta horrek administrazio publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokitze prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz baitoaz".

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2018rako Aurrekontua Gauzatzearen abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, zeina abenduaren 28ko 71/2018 Dekretuari jarraikiz luzatu baitzen. Izan ere, haren 24.2, 24.3 eta 24.4 artikulua langileen kudeaketari buruzkoak dira, eta haietan adierazitakoaren arabera, "2018ko ekitaldian, lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da, eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

Foru sektore publikoko erakundearen aurrekontu plantillaren muga erakunde horietako langile funtzionario eta lan kontratudun langile finkoen plazen gutzirako agregatuari dagokio.

Gainera, foru arau horrek xedatzen duenez, "aurreko mugak ez du eraginik izango epai-learen aginduz edo eskumen berriak eskuratzearen ondorioz edo kanporatutako edo azpikontratutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzearen ondorioz sortzen edo aldatzen diren lanpostuetan. Era berean, ez da aplikatuko foru sektore publikoan aurretik harreman finkoa eta mugagabea duen langile funtzionarioa edo lan kontratuduna kontratatzen denean, ez egiturako lanpostuak edo plazak finkatzen direnean, ez eta foru arauak aldarrikatzen direnean, ez Gobernu Kontseiluak abagunekoak ez diren planak, programak eta jarduketak garrantzitsuak onartzen dituen ere, behar den moduko finantzaketarik eduki ezean, funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoak aldeko txostena eman ondoren (txostenak adierazi behar du ez dagoela lanpostu atxikipen ez langile esleipen berririk egiterik eta ezinezkoa dela langileak arrazionalizatzeko eta antolatzeko bestelako neurririk aplikatzea)".

Lehenengo eta behin, alde batetik, ikuskatzaile taldeen atal burutzak betetzeko ezaugarriak aldatzen dira Ogasun Zuzendaritzan. Hain zuzen ere, oraingo lanpostu zerrendan jasotzen da ezen 1118.001, 1119.001 eta 1120.001 atal burutzak (1, 2 eta 3 ikuskatzaile taldeak, hurrenez hurren) euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioentzat irekita daudela. Aldaketa proposamenak dakarrena da homogeneizatzea foru plantillako gainerako atal burutzekin eta atal buruen jatorri administrazioa mugatzea Arabako Foru Aldundiko bertako funtzionarioentzat.

Beste alde batetik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak proposatzen du jatorri administrazioa aldatzea Ikuskatzailetzako eta Baimenen Kudeaketako Atal burutzan (1017.001). Proposatzen dena da lanpostu hori betetzeko aukera Euskal Autonomia Erkidegoko langileei ere ematea.

Bigarrenik, datuen babeseko teknikari lanpostu bat sortzea (1371.001) eskatzen da Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko, han ezartzen baita nahitaezkoa dela datuen babeseko ordezkari teknikari figura izendatzea Horretarako, laborategiko langilearen lanpostu hutsa (1520.014) amortizatzen da Laborategi Orokorreko Zerbitzuan. Bukatzeko, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan eskatu da inprimaketa ondoko makinaketa ofiziala (1569.003) lanpostuaren beste dotazio bat sor dadila. Langile plantilla ez handitzeko, egun hutsik dagoen aurreinprimaketako ofiziala (1564.002) lanpostua amortizatzeke eskatzen da.

Honekin batera doan I. eranskinean jasotzen dira kenduko diren lanpostuak. II. eranskinean, berriz, sortzea proposatzen diren lanpostuen ezaugarriak zehazten dira.

Entzunaldi izapidea egin da, eta negoziazio prozesua gauzatu da sindikatuekin, arau haue-tan xedatutakoarekin bat etorritik: Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

Aginduzko txostenak ikusita, haiek direla bide, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapene-naren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak proposatuta, eta kontuan izanik Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6.1.e) artikuluan ezarritakoa, eta Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekre-tuak ezarritakoa, eta Funtzio Publikoaren Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuak eta Funtzio Publikoan Eskumena duen Sailaren Egi-tura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak ezarritakoa, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gor-detako lanpostuen zerrenda aldatzeari, ondoren xedatutakoaren arabera:

- Jatorri administrazioa aldatzea hiru ikuskatzaile taldeen atal burutzetan (1118.001, 1119.001 eta 1120.001); hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa izan beharrean Arabako Foru Aldundia izatea.
- Jatorri administrazioa aldatzea Ikuskatzailetzako eta Baimenen Kudeaketako Atal burutzan (1017.001); hau da, Arabako Foru Aldundia izan beharrean Euskal Autonomia Erkidegoa izatea.
- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak amortizatzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.

Bigarrena. Erabaki honek Foru Gobernu Kontseiluak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta ALHAOn geroago argitaratu.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtoa, ebazpena eman duen erakundearen beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan -Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 13a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

KODEA	IZENA	MOTA	DELERREG.		BET.	LANTOBUEN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA			
			BZT.	EZORD.		ATXIKIPENA	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA		BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA
<b>30 Saila ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMOAREN SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA</b>													
<b>30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK</b>													
<b>30.3.03 Zerbitzua LABORATEGI OROKORRA</b>													
1520.014	LABORATEGIKO LANGILEA	EB	B	2	L	AFA	C 2	222	1	200	14	18.726,90	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.3.06 Zerbitzua MOLDIZTEGIA</b>													
1564.002	AURREINPRIMAKETAKO OFIZIALA	EB	B	L	AFA	C 1 C 2	213	222	418	1	15	17.416,65	VITORIA-GASTEIZ
										<b>Lanpostu Totala:</b>	<b>2</b>		

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. 1

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	ERA.	LANTZUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	PREST.			ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO
			JARD.	JARD.			ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUAK		ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK
<p><b>II. ERANSKINA</b>  <b>LANPOSTUEN ZERRENDA</b>  <b>LANPOSTUAK SORTZEA</b></p>													
<p><b>02 Saila DIPUTATU NAGUSIA</b>  <b>02.3 Zuzendaritza DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA</b></p>													
1371.001	DATUAK BABESEKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 1	11	240	3	26	34.537,65	VITORIA-GASTEIZ	
							211	240					
<p><b>30 Saila ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMOAREN SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA</b>  <b>30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK</b>  <b>30.3.06 Zerbitzua MOLDIZTEGIA</b></p>													
1569.003	INPRIMAKETA ONDOKO MAKINETAKO OFIZIALA	EB	B	L	AFA	C 2	222	1	200	13	16.699,20	VITORIA-GASTEIZ	
<p>Lanpostuak: 2</p>													
<p>Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an</p>													
												PAG. 1	